

Gizarte modernoaren diagnostiko bat

(hurbilketa Habermas-en krisi kontzeptura)

Iñaki Unzueta Alberdi
EHUko irakaslea

Joan den mendetik gizarte kapitalistak aspektu alienagarri eta deszibilizatuak oparo eskaintzen ditu eta arrazoi burgesaren porrotaren adierazle horien aurrean Marx eta Weberren pentsamenduak izan ditugu nagusi. Ordea, bi egile horiek mantentzen dituzten interpretazio murriztaileen aurrean, Habermasen planteamendua gailentzen da, ilustrazioa eta Humanismoaren legatua errekuiperatzen saiatzen baita. Habermasen asmoa bizitzaren munduaren kolonizazioa dakarren arrazionalizazio prozesu instrumental hautakorra, krisi eta patologia dakartzana, kritikatzera eta jorratzea da. Ildo honetatik, kapitalismo aurreratuaren krisi eta patologia sozialak hobeto aztertzeke marku aproposagoa eskaintzen da.

Last century the capitalist society began to present many alienated and uncivilized aspects, and the reaction to that decay of bourgeois society is represented by Marx's and Weber's philosophy. Facing to Marx's and Weber's beliefs, a third one, Habermas, supports a different philosophy, which overcomes the previously maintained ones. Habermas tries to recover the legate of both the Illustration and the Humanism. He wants to discuss and criticize the instrumental and optional rationalization process, which leads to the colonization of the life's world and causes crisis and pathologies. In this way, the article offers a very appropriate framework to analyze social crisis and pathologies of the advanced capitalism.

Sarrera

XX. mendea hainbeste sufrikario erremediatzen ez jakin izanaren ezintasunaren historia da, justizia ekarri ez duten iraultzen historia. Mende honi, egunerokoa bideratzeko ezgaitasunak halako kutsu tragikoa erantsi dio.

Krisiaren egungo ezaugarriak kontaezinezko arazoetan nabaritzen dira. Adibidez 1973.eko petrolio-prezioaren gorakada jarraian etorriko ziren krisi ekonomiko, finantzario eta laboralaren seinalea izan zen. Beste batzuek ongizate-estatuaren krisia eta ideologiaren krisia, batez ere ezkerri dagokiona, salatzen dituzte. Arte munduan, abangoardismoen nekea somatzen da eta gizabanakoak kolektiboki hartuta ikertzen dituztenek kontzientziaren zatiketa, kosmobisioen errelatibismoa eta zentzu kultural eta pertsonalaren krisiak seinalatzen dituzte. Beraz krisi kultural eta sozial handi baten aurrean gaude, kaleko gizon eta emakume arruntak agortze, beldur, ezkortasun eta segurtasunik ezaren sentsazioa somatzen du.

Baina zeren agortzea? Zeren aurreko segurtasunik eza? Galdera hauei erantzun egokiak emateko gizartearen gizabanakoei buruzko oinarritzko ideia batzuk kontuan izan behar ditugu. Funtsezko ideia hauen artean Durkheim-ek azpimarratutako bat dago: gizakiak bizitzeko zentzuz bizi behar duten izakiak dira. Eta, hain zuzen ere, kultura izendatzen duguna da, irudiak, norabideak, pautak eta baloreak batzeko zentzua ematen duena.

Gizakiaren eta errealitatearen ikuspenez jositako sarea apurtzen denean gizarteak eta gizakiak norabidea

galtzen du, krisi kulturala agertuz eta berarekin batera sinestu eta jarraitutakoaren zahartzapena. Larrugorritasunaren sentimendua, baliotasun eta babes sozialaren eza agertzen da.

Zein da beraz, bizitzari zentzua ematen dion oinarririk gabe geratu den gizarte eta gizakiaren irudia?

Gutxienez teoriko kritikoen zatik gure gizartearen krisiak gizarte-eredu jakin bati eragiten dio, produkzio zientifiko-teknikoaren eta garapen sozioekonomikoaren inguruan egituratutako gizarteari hain zuzen ere.

Hala ere, badira garapenak hondamenei lotuak direnak. Gaur egun, XIX. mendean kreazio literario eta desio ziren lorpenak baditugu. Dena den, modernitatearen garapen ekonomiko eta tekno-burokratikoaren ostean gizakiaren garapena ez da agertu, ezta gizakiaren zoriontasuna ere. Praktika tekno-burokratiko autoamaitu egin da. Teknologia berrian hain eragile hedatu den domeinu arrazionala ez da garapen instituzionalizatuan honen osagarria izan, zeinaren arabera, lur dimentsioak eta bakea kontuan hartuta, gizakiaren elkarbizitza antolatu zezakeen.

Perspektiba onenak somatzen ziren unean, zergatik pobretze kultural hau? Modernitatearen porrotaren sustraien bilaketan soziologiaren fundatzaile eta mende honetako pentsalari onenek ihardun dute. Bada hausnarketa eta pentsamenduaren hari bat, Marx, Weber eta Durkheim-en aportazio izugarriak lotzen saiatzen dena.

Gizartearen teoria kritiko honetatik gaur egungo krisi kulturala sakontzen saiatuko gara. Honetarako oinarritzko sei pauso hauek emango ditugu:

[1] Kapitalismo aurreratuaren gizartearen krisi eta patologien azterketarako beharrezkoa den lanabes kontzeptuala aurkeztu.

[2] Sistema eta bizitzaren munduaren arrazionalizazio-prozesuak analizatu, hala nola integrazio soziala eta sistemikoa.

[3] Mendebaldeko arrazionalizazioaren prozesuan Weberrek erabili zuen arrazionaltasun kontzeptuaren erredukzioa azaldu.

[4] Integrazio sozial eta sistemikoa-
ren arteko deslotura aztertu, hala nola bizitzaren munduaren kolonizazioaren prozesua.

[5] Kapitalismo aurreratuaren gizarteetan krisietarako joerak aztertu eta aldi berean krisi-tipologia aurkeztu.

[6] Azkenik, krisi honetako erronkei erantzunak aurkeztu.

1. Ekintza komunikakorra. Bizitzaren mundua eta sistema

Ekintza sozialaren kontzeptu guztietan egitura teleologikoa bada ere, haien artean ekintza sozialen koordinazioaren planteamenduaren arabera bereizten dira. Ekintzen koordinazioaren mekanismoa hitzarmena bada, elkarrekintzen partaideek adostasunera zuzendutako jarrera hartuko dute; eta mekanismoa eragipena bada,

arrakastaren bila zuzendutako jarrera hartuko dute. Halaxe, planteamendu batzuek hitzarmena postulatu bitartean, beste batzuek aktoreen elkarren arteko eraginak postulatu dituzte. Jakintza *arrunta* izendatzen dut, dio Habermasek,

hitzarmenean oinarritzen den jakintza bat, eta akordio horren pean kritikagariak diren balio-asmoen onspen intersubjektiboa aurkitzen da. Akordioak partaideek jakintza bat baliotzat jotzen dutela esan nahi du, hau da, intersubjektiboki elkargarri dela. Mesede horri esker bakarrik, jakintza arrunt batek, elkarrekintzaren sekuentzian garrantzitsua den heinean, ekintzen koordinazioaren funtzioak bete ditzake (Habermas 1994: 481).

Aitzitik, ekintzen koordinazioaren mekanismoa bezala aldebateko eragina duten eruedetan, ez emankizunen balio-xedeak ez aipatutako arrazoiak apelazio instantzia bezala ez dira kontuan hartuko.

Soziologian, ekintza sozialari buruz ez dago irizpide zehatzik (Habermas 1987: 139, 145-146)¹ eta funtsean ondorengo oinarritzko lau kontzeptu hauek ditugu: ekintza teleologiko-estrategikoa, arauak erregulaturiko ekintza, ekintza dramaturgikoa eta ekintza komunikakorra². Ekintza teleologikoan gizakiak helburu bat lortzeko bitarte egokiak kontuan hartzen ditu eta bere arrakastaren kalkuluan beste egile baten itxaronbideak sartzen direnean, azkeneko hau borrokan bere helbu-

1. Habermasek ekintzak bakarrik izendatzen ditu adierazpen sinboliko jakin batzuekin, zeinetan aktorea gutxienez mundu batekin harremanetan sartzen den, baina horietako batek beti mundu objektiboa izan behar du, beraz ekintza kontzeptu guztietan egitura teleologiko oinarritzkoa da. Elkarrekintzan partaideen ekintza teleologikoen koordinazio-motaren arabera bereiztuko dira. Ekintza kontzeptu guztietan egitura teleologikoa oinarritzkoa denez, baita ekintza komunikakorrean ere, ekintza ez da komunikazioa. Lengoaia adostasunerako balio duen komunikabide bat da; bitartean aktoreak beren ekintzen koordinazioan elkar ulertuz, nor bere helburu propioak bilatzen ditu.

2. Modu honetan Habermasek, Weberrek, Durkheimek, Goffmanek eta Meadek errepresentaturiko tradizioak kontuan hartzen ditu.

ruak lortzeko, ekintza estrategikoa dugu. Amankomuneko balore batzuek talde sozial bat zuzentzen dutenean, arauak erregulaturiko ekintza dugu. Eta elkarrekintzetan partaideek elkarren aurrean interpretatzen dutenean, ekintza dramaturgikoa dugu. Ekintza teleologiko-estrategikoa egile-mundu objektiboaren erlazioa (gauzak, gauzen egoera, fenomenoak, etab.) aurre-suposatzen duen bitartean, arauak erregulaturiko ekintzak egile-mundu sozialaren erlazioa (balore, arauak, etab.) eta ekintza dramaturgikoa egile-mundu subjektiboaren (ideiak, nahiak, etab.) kontuan hartzen du.

Bakarrik ekintza komunikakorraren kontzeptuak lengoaia elkarbidetzat hartzen du, eta hitzun eta entzuleek, beraien bizitzaren munduaren ikuspuntutik, aldi berean mundu objektibo, sozial eta subjektiboaren zerbait kontuan hartzen dute, egoeraren definizioak negoziatzeko denek uler dezaten (Habermas 1987: 137-138).

Eredu teleologiko-estrategikoan, helburuak lortzeko aktoreak egiten dituen operazioen kalkuluetan, arrakastaren bila zuzendutako eginkizun objektibagarrietan beste aktore batzuk ere sartzen dira; eta elkarrekintza estrategikoetan lengoaia garrantzitsua izan badaiteke ere, komunikazio linguistikoa bere plan estrategikoaren bitartekoa baino ez da. Eredu honek, gertakarien existentzia, gauzen egoerak, etab. aurre-suposatzen ditu; hau da, aktore-mundu objektiboaren erlazioa eta beraz interbenitu eta manipula daitekeen mundu objektibo baten existentzia aurre-suposatzen du. Ikuspuntu honetatik beraz, gizartea ordena instrumental bezala agertzen zaigu, jarrera objektibagarriak mantentzen dituzten aktoreak elkar instrumentalizatzen baitute beren helburuak lortu ahal izateko.

Gainerako ereduetan, hau da ekintza ez-estrategikoen ereduetan, lengoaia adostasunera zuzendutakoa, ekintzen koordinazioan oinarritzko elementu bihurtuko da.

Horrela, arauak erregulaturiko ekintzak, aktore-mundu objektiboaren erlazioaz aparte, mundu soziala ere aurre-suposatzen du, non arauen subjektibitatearen arteko balioak zentzua ematen dion. Ekintzaren arauzko ereduak, aktoreek mundu objektiboarekiko jarrera objektibagarria eta mundu sozialaren arauen aurrean adostasun/desadostasunaren jarrera mantentzeko. Kasu honetan ez da egile bakarlarria kontuan hartzen dena, amankomuneko baloreen arabera bere ekintza zuzentzen duen talde sozial baten kideak baizik.

Ekintza dramaturgikoaren ereduak, aktoreak mundu subjektiboaren atal batzuen aurkezpena egiten du. Eta aurreko kasuan bezala, egitura teleologikoa oinarrian dagoenez, gertakarien mundu bat aurre-suposatzen du. Gainera eredu honetan ez da *in mente* hartzen aktore bakarlaririk, ezta talde sozialik ere, berezko atalak baizik, desio eta sentimenduekin erlazionatuak daudenak, azaleratzen dituzten partaideak.

Beraz, arauak erregulaturiko ekintzak gizarte baten arauekin eta indarrean dauden ordena instituzionalekin lotura du. Aitzitik, ekintza dramaturgikoaren ereduak sormen-operazioetan sartuta dauden aktoreak nabarmentzen dira, ordena instituzionalerako gune kategoriala edo kontzeptuala ukatuz. Habermasek dioen bezala, gizartearen lehengo kontzeptua «hain estu diren hitz-mugetan planteatuta dago ezen aktorearen beraren operazioetarako lekurik ez baitago; ekintza-

ren aktorea gainsozialdua dagoela objekta dakiok (D. Wrong). Ordea, ekintza dramaturgikoaren aktorea azpisozialdua egongo litzateke» (Habermas 1989: 487-488).

Beraz, aipatu ekintzen aurrean, Habermasek ekintza komunikakorra eta bi maila (sistema eta bizitzaren mundua) dituen gizarte kontzeptua kontrajartzen ditu.

Ekintza komunikakorraren ereduak lengoia medio bezala aintzakotzat hartzen du, non hiztun eta entzuleak, beren bizitzaren munduaren ikuspuntutik, aldi berean mundu objektiboko (inguratzen gaituen mundu enpirikoa), sozialeko (gainerako aktoreak) eta subjektiboko (desio, asmo, sentimenduak, etab.) zerbait kontuan hartzen duten, egoeraren osotasunezko definizioaz ados jartzen saiatuz. Halaber eredu honek balio-xede jakin batzuk lotzen ditu; batzuk, esaten dugunaren egiari dagozkionak eta mundu objektiboarekin zerikusia dutenak; beste batzuk, hizketa egintzen zuzentasunari dagozkionak eta mundu sozialaren balore eta arauekin zerikusia dutenak; eta azkenik benetakotasun- eta zintzotasun-xedeak daude gure mundu subjektiboaren desio, sentimendu etabarrekin zerikusia dutenak. Ekintza komunikakorrean, beraz ekintzaren koordinazioaren mekanismoa adostasuna da, elkarrekintzan parte hartzen duten aktoreak beren emankizunetik balio-xedeaz ados jartzen baitira.

Erabilitako perpausaren balioa, arau gramatikalak kontuan hartuz, ondo itxuratuta dagoen esaldiaren menpekoa da; proposamenaren balioa errealitatearekin ados dagoenaren menpekoa da; adierazitako asmoaren balioa hiztunak *in mente* duenarekin bat etortzeraren menpean dago; eta hizketa-egintzaren balioa indarrean dauden arauen azpia betetzen

duenaren menpean dago» (Habermas 1989: 209).

Desadostasuna adierazpen linguistikoak ulergaitzak direnean sortuko da, eta honek ulertezintasun eta gaizkiulertuak ekarriko ditu: hiztuna zintzo ez denean eta adierazpenak ez datozen bat esperientzia eta gertakariekin; adierazpenak indarrean dauden arauekin desegokiak direnean edo arauen legitimitatea kolokan jartzen denean; eta azkenik, adierazpen linguistikoaren asmoak aktoreak pentsatzen duenarekin bat ez datozenean, hau da aktorea egiati ez denean, desadostasuna suertatuko da. Balio-xederen bat kolokan jartzen denean, elkarrekintza, lehen zuen adimenduzentzu berberarekin jarraitu nahi badugu, eta agintea, indarra edo tradizioari apelazioa baztertzen badugu, esaten denaren balio-xedeen erabakitzeko argumentazio-mailara pasatzea baino ez zaigu geratzen. McCarthy-k seinalatzen duenez, «Habermasek duen akordio lorpen nozioaren gakoia (*Verständigung*) arrazoiak erabiltzearen posibilitatean datza, zeinekin kritikagarriak diren balio-xedeen onespren intersubjektibora heltzea posiblea den» (McCarthy 1987: 450). Aitzitik, hizketaren oinarriko balioa, balio-xederen bat behartuta dela eta, mugatua geratzen denean, partaideak konturatu gabe eta adostasunaren ustezko oinarriarekin elkarrizketak jarraitzen duenean, komunikazio distortsionatua dugu.

Habermasen ekintza komunikakorrak honako ondorio hau atera daiten: bizitzaren munduarekin ekintza komunikakorrak duen osagarritasuna.

Ekintza egoeren domeinu bezala ulertuz gero ekintza komunikakorrean, elementu honek bi dimentsio ditu: helburuen burutzapena edo teleologikoa,

eta komunikakorra, hau da akordioen lorpena elkarren arteko harremanak ezartzeko. Baina egoera bat, gai batek mugaturiko bizitzaren munduaren zati baten adierazpena baino ez da, eta honek aldi berean elkarrekintzan parte hartzen duenaren helburu eta interesekin lotura du. Beraz ekintza komunikakorra eta bizitzaren munduaren arteko lotura nabaritzen da lengoia eta ekintzarako gauza diren subjektuen produktu sinbolikoak bizitzaren mundu sozialaren osagaiak direla konturatzen garenean:

Mundu sozialaren osagai adierazpenaren esanahia, hitz egiten dugunean edo aritzen garenean sortzen ditugun objektu sinbolikoekin erlazionatuta dago: lengoia eta ekintzarako gai diren subjektuen berehalako manifestazioekin hasiz (hizketa-egintzak, keinuak, helburu bat lortzeko zuzendutako iharduerak, lankidetzak-egintzak); manifestazio horietako jalkiekin segituz (testuak, itzulpenak, denetariko dokumentuak, artelanak, balore kulturalak, kultura materialaren objektuak, teknikak, etab.), antolaketarako gauza diren eta beren burua finkatzeko gauza diren zeharka sortutako formak heldu arte (erakundeak, sistema sozialak eta nortasunaren egiturak) (McCarthy 1987: 459).

Beraz, ekintza komunikakorraren azpian bizitzaren munduak, unibertso sinbolikoak ditugu. Hauek eskemak hornitzen dituzte eta partaideek egoeraz egiten dituzten definizioekin, adimenduaren beharrak asetu eta esaltzen dituzte. Hortik dator kontzeptu bien osagarritasuna.

Ekintza komunikakorrean partaideen ikuspuntutik, hauek bizitzaren munduaren muga elkarri ulertzen diote, eta egoeren domeinuan, *a fronte*, bizitzaren munduaren zati tematizatua dute, hau da, askatu behar duten korapiloa dute; *a tergo*, azpiko etsipen

aproblematikoak hornitzen dituen bizitzaren mundua dute; eta erreferentzi sistema bezala, munduari buruzko hiru kontzeptuak, egoeraren elementu murriztaileekin: mundu objektiboaren gertaerak, mundu sozialaren arauak eta mundu subjektiboaren bizipenak. Habermasek horregatik dio.

Egoeren domeinua prozesu zirkularra da; alde batetik aktorea ekintza egozgarriak hasten dituena da eta bestetik, berak dituen tradizio kulturaletik, bera dagoen talde lagunkideetatik eta sozialgintza eta ikaskuntza-prozesuetan sartuta dagoen neurritik datorren produktua da.

Azkeneko honek beste perspektiba batera eramaten gaitu, bizitzaren mundua somakariak duen perspektibatik beha baitaiteke. Ikuspuntu honetatik, bizitzaren munduaren berregintzan adostasunera zuzendutako ekintzaren funtzioez galdetu behar da. Habermasek seinalatzen duenez

partaideak egoera batez elkar ulertzean, tradizio kultural batean sartuak dira eta tradizio kultural hori erabili eta berriztatzen dute; ekintzen koordinazioan, kritikagarriak diren balio-xedeen onespren intersubjektiboan bidez, talde sozialetan daudela eta taldeko integrazioa berretzen dute; erreferentzi pertsonekin elkarrekintzan sartzen direnean, umeak bere talde sozialaren orientazio-baloreak barneratzen ditu eta ekintzarako orokortasuneko ahalmenez jabetzen da [...]. Ulerkuntzaren bilakuntzaren aspektupean, ekintza komunikakorrak ezagupen kulturala igorri eta berriztatzeko balio du; ekintzaren koordinazioaren aspektupean, taldeko elkartasuna ezartzeko eta integrazio sozialerako balio du; sozialgintzaren aspektupean, identitate pertsonalak osatzeko balio du. Bizitzaren munduaren egitura sinbolikoak, ezaguera balio-garrien jarraipenaz, taldeko elkartasunaren egonkortasunaz eta aktore sozialen

prestakuntzaz ugaltzen dira» (Habermas 1987: 195-196, 204).

Beraz somakariak duen perspektibatik, adostasunera zuzendutako ekintzaren funtzioez galderak bizitzaren munduaren berregintzan; hauek ondorengoak izango lirateke: berregintza kulturala, integrazio soziala eta sozialgintza. Aipatutako bakoitzari, kultura³, gizartea⁴ eta nortasuna⁵ (Habermas 1987: 498) dagozkio. Beraz, ekintza komunikakorra eta bizitzaren munduaren artean, ekintza komunikakorra eta bizitzaren munduaren berregintzaren artean, erlazio biunibokoa dugu.

Bestetik, erreproduktzio materialari dagokionez, hau ekintza estrategiko eta komunikakorren iharduera teleologikoaren bitartez gauzatzen da. Baina egoerak kontrolpean jarri nahi dituen aktorearen ikuspuntutik, bizitzaren munduaren erreproduktzio materiala askotan aktoreen arteko lankidetzaren nahi izandako emaitza bezala ez dago ulertzerik. Gizarte orotan badira integrazio sistemikorako mekanismo batzuk, adibidez merkatua, non ekintzen koordinazioak partaideen kontzientzia gainditzeko duen. Beraz, ekintza komunikakorrak ekintza sozialen zati bat baino ez direla esatea zilegi da, eta adostasunera zuzendutako negoziatioetan sartuta dagoen aktorearen ikuspuntutik bakarrik bizitza sozialen plexoa ulertezina dela. Horregatik, bada gizartea aztertzeke beste modu bat, hau da, somakari baten ikuspuntutik hartzea.

Pentsatzen badugu integrazio soziala adostasunera zuzendutako ekintzetan, berezko logika duten argudio eta elkarrizketetan ez datzala, eta aldi berean onartzen badugu ekintza komunikakorrak ez duela gizartearen integrazioa burutzeko beste indar, helburu horretarako lagungarriak diren beste lotura funtzional batzuk onartu behar ditugu. Ekintza komunikakorra ez da integrazio eta koordinazioaren mekanismo bakarra; bizitzeko erak, konbentzio sozialen etenek, etab.ek gainezka egingo lukete eta. Beraz, modernitate sozialak elkarrekintzarako bi esparru ditu: ekonomikoa eta politiko-administratiboa.

2. Bizitzaren munduaren arrazionalizazioa eta konplexutasun sistemikoa. Integrazio soziala eta sistemikoa

Soziologian bilakaerari buruzko hiru gradu edo hiru epealdi bereiztea, ia konbentzioa da: gizarte tribalak, estatuaren inguruan eraturiko ohizko gizarteak eta gizarte modernoak. Baina kontua hauxe da, bilakaera sozialen aurrerapenak bizitzaren munduaren arrazionalizazioa dakarrela, alegia, mundu horrek dituen hiru elementu estrukturalen jarraikako desberdintzapena: kultura, gizartea eta nortasuna. Ikusi dugun bezala, estrai-nekoak interpretatzeko arauak edo kulturari buruzko oinarriko usteak eta honek ekintzan duen eragina kontuan hartzen ditu; bigarrena, harreman sozialen arau egokiekin erlazionatuta

3. «Kultura jakintza-horniketa da eta partaideak munduaren zerbaitetaz ados jartzen direnean, interpretazioez baliatzen dira».

4. «Gizartea zilegizko ordena da eta horien bidez talde sozialetan partehartzearen erregulazioa egiten dute eta aldi berean elkartasuna bermatzen».

5. «Gizakiaren gaitasuna nortasuna da eta horien bidez lengoaia eta ekintzarako gauza pertsona bihurtzen da. Horiei ezker adostasunera orientaturiko prozesuetan parte har dezakete eta beren nortasuna berretsi».

dago; eta nortasunak, pertsonen izateko eta jotzeko erari ukitzen dio. Ekin-tza komunikakorrean konprometitzeak eta aipatutako hiru elementuetako bakoitzean ulerkuntza lortzeak, kultura eta gizartearen integrazioaren indargarrien bidez eta nortasunaren eraketaren bitartez, bizitzaren munduaren berregintza suposatzen du. Zaharkituri-ko gizarteetan hiru osagai hauek sendoki lotuak dauden bitartean, bizitzaren munduaren arrazionalizazioak kultura, gizarte eta nortasunaren jarraikako desberdintzapena suposatzen du, eta berarekin batera, elkarrekintzak, motibaturiko arrazionalizazioak elkarren arteko ulerkuntzaren kontrolpean egon daitezten gorako premia, azkeneko buruan argudiorik onenean oinarrituriko ulerkuntzan errotu behar dela.

Bizitzaren munduan gertatzen den bezalaxe, sistema-mailaren arrazionalizazioak gorako konplexutasuna eta jarraikako desberdintzapena dakartza; honela, egituren buruaskitasuna goraka doa. Zenbat eta botere gehiago duten, bizitzaren munduan orduan eta eragin gehiago dute. *Consensus* prozesuarekin gero eta lotura gutxiago dute eta egitez, bizitzaren munduan prozesu horren probabilitatea mugatzen dute. Beste era batera esanda, egitura arrazional hauek, komunikazio-gaitasuna gehitu ordez, honela ulerkuntza lortuz, prozesu horiek kanpoko kontrol baten bidez mehatxatzen dituzte.

Habermasen ustez sistema eta bizitzaren munduaren estrategia kontzeptualak bete-betean lotzea funtsezko arazoa da; estrategia horiek «integrazio soziala» eta «integrazio sistemikoa» dira.

Integrazio sozialaren perspektibak bizitzaren mundua du ardatza. Eta normatiboki bermaturiko *consensuaren* edo komunikazioaren bitartez lorturiko *consensuaren* bidez integratzeko ekin-tza-sistemak dituen moduetan oinarritzen da. Gizartearen integrazioa aipaturiko mekanismoaren bitartez egiten dela pentsatzen dutenek ekintza komunikakorra dute abiapuntua eta gizartea bizitzaren mundutzat jotzen dute. Taldeko kideen barne-perspektiba hartzen dute eta bizitzaren munduaren kideen ulerkuntza haiek dutenarekin erlazionatu ahal izateko fokatzeko hermeneutikoa erabiltzen dute. Beraz, gizartearen etengabeko berregintza, egitura sinbolikoak mantentzeko bizitzaren munduaren kideek burutzen dituzten ekintzen emaitza da. Erreproduktzio hau bakarrik haiek duten perspektibatik jotzen da eta beraz fokatzeko hermeneutiko honetan kontuan hartzen ez dena alde batetik kanpoan dagoenaren ikuspuntua da, eta bestetik sistema-mailan ematen diren prozesu ugaltzarren oharmena.

Integrazio sistemikoaren perspektibak sistema-maila kontuan hartzen du bai eta subjektiboki ez koordinaturiko banakako erabakiez kanpoko kontrolaren ihardueraren bidez integratzen den modua ere. Perspektiba hau hartzen dutenentzat gizartea sistema autoerregulatzaileria da. Kanpoko somakariaren perspektiba hartzen dute eta hau pautak edo arauak eskuratze-ko eragozpena da, hauek bakarrik bizitzaren munduaren kideen barne-posiziotik, hermeneutikoki, uler baitaitezke.

Integrazio sistemikoen erarik gabe gizartearen mantenimendu eta egonkortasuna oso zaila izango zen,

ekintza komunikakorra elkarrekintzak koordinatzeko oso mekanismo hauskorra baita. Hori dela eta, Habermasek integrazio soziala eta integrazio sistemikoaren diferentzia mantentzen du, bestela bi estrategia horiek bereizturik hartuta aldebatekoak izango ziratekeen:

Gizarte-teoriak bataren eta bestearen konbinazioa exigitzen du, partaidearen barne-perspektiba eta somakariaren kanpoko perspektibaren konbinazioa hain zuzen ere, analisi hermeneutikoaren eta analisi sistemiko-funtzionalistaren konbinazioa, integrazio sozialaren eta integrazio sistemikoaren azterketa behar ditu (McCarthy 1987: 467).

Aurkeztutakoaren arabera eta [1] ekintza-egitura dimentsioa kontuan hartuz, amaituko dugu esanez gure analisi-gaian alde batetik ekintza komunikakorra eta aproposalako ekintza arrazionala sartzen direla (ekintza instrumentala eta estrategikoa); eta bestetik, ekintza horiek dituzten hedaketa-domeinuak: bizitzaren mundua eta sistema. Ekintza komunikakorraren erresuma bizitzaren mundua da eta ekintza instrumentalarena, sistema. Bestetik [2] subjektibismo-objektibismo dimentsioa kontuan hartuz gero, barne-perspektibatik bizitzaren mundua hitzun eta entzulea aurrez aurre kausitzen den lekua da, bizitzaren mundua balio-xedeak kritikatu edo baieztatu daitezkeen testuinguruko marra da, non beste iritzi batzuk erabakitzen diren eta egokia balitz akordioetara heltzen diren. Modu honen bidez bizitzaren munduaren erreproduktzio sinbolikoa eta integrazio soziala burutzen dira. Baina somakariaren perspektiba kontuan hartzen badugu, gizartearen autoerregulatzen den sistema da eta integrazio sistemikoa subjektiboki ez koordinaturiko banakako

erabakiez kanpoko kontrolaren ihar-dueraren bidez burutzen da.

Habermasek ere bizitzaren munduaren eta sistemaren bilakaeraren kezka du. Hauen arrazionalizazioa zenbat eta handiagoa izan, honek bizitzaren munduan eta sisteman itxura ezberdinak ditu; bizitzaren munduaren kolonizazioaren funtsa, halako diferentzian datza hain zuzen ere.

3. Habermasek Max Weber-i egiten dion harrera.

Modernitatea galilear zientzia berriaren arrazionaltasunarekin bat etorri da. Zientzia berriaren adierazlerik handienetarikoak, Francis Bacon-ek, *Atlantida Berria* izeneko testuan, helduko ziren itxarobideak indarrez adierazi zituen: posible diren gauza guztiak burutzeko giza gogoaren handitasuna. *Atlantida Berria* zientzia eta ahalmena bat datoz. Baina domeinuari zuzendutako ezaguera hau oso arriskutsu bihurtuko da, aurregabeko maneio-ahalmena eskaintzen duelako gizakia naturaren errege bihurtuz. Domeinua ahalegin hau kontrolik gabe geratuz doa eta ukitzen duen guztiaren kontrola eta menpekotasuna azeleratzen hasten da. Antza denez, gaur egun ikusten dugun bezala, ez da bakarrik harrapaketa endakatzen den interes dominatzailearen aurrean gauzen munduak ahitua geratzeko duen arriskua, baita gizakia bera, gizateria, objektu batean itxuraldatzearena ere.

Baina gizateria egiazko egoera gizatiarrean sartu ordez, zergatik joan da basakeri genero berri batera? Erantzuna arrazoi instrumentalaren kritikatik etor daiteke. Weber-ek aztertu zuen

Mendebaldeko arrazionalizazioa, Habermasen ustez arrazionalizazio formalen (Ritzer 1993: 277-278)⁶ oinarritu zen, aiposeko ekintza arrazionalaren arrazionalizazioan, eta honek indar emankorren garapena eta bizitzari buruzko kontrol teknologikoa ekarri ditu. Zientzia arrazionalak seinalaturikoa da eta zientzia arrazionalitatearen magalean, naturaren legalitate funtzionalak bakarrik izan dira kontutan. Ondoren, zientziak teknikarekin izan zuen lotura etekina eta erabilgarritasuna lortzera zuzendu zen.

Integrazio sozial eta sistemikoaren deslotura. Bizitzaren munduaren kolonizazioa

Kolonizazioaren ideia ulertzeko, Habermasen ustez gizartea bi maila (bizitzaren mundua eta sistema) dituen entitate delat kontuan hartzea oso garrantzitsua da. Gizarte zaharkituetan bi elementu horiek oso lotuak zeuden bitartean, gaur egun haien arteko deslotura gero eta handiagoa da: deselkartu egin dira. Bi instantzia horiek arrazionalizazio-prozesuetan murgilduta badaude ere, prozesu horrek erresuma bietan era ezberdinak hartu ditu. Sistema eta bizitzaren munduaren arteko erlazioa dialektikoa bada ere (biek elkarri mugak ipintzen diote eta aldi berean aukera berriak zabaltzen dira), gizarte modernoan sistemak bizitzaren mundua kontrolpean du. Beste era batez esanda, Habermasen ustez erlazio dialektikoa apurtuz doa

eta kezkatu da sistema bizitzaren munduan egiten ari den inbasioaz.

Habermasek sistema eta bizitzaren munduaren gorako arrazionalizazioa parekatu egiten ditu. Bizitzaren munduaren arrazionalizazioak ekintza komunikakorraren arrazionalitatearen gorakada suposatzen du. Honela, adostasunera zuzendutako ekintza, arauen pisutik gero eta gehiago askatzen da, eguneroko lengoaiak pisu gehiago izan dezan. Beste era batera esanda, integrazio sozialean gero eta garrantzitsuagoak dira lengoai-mailako *consensuaren* eraketarako prozesuak.

Baina honen emaitza zera da, lengoaiaren eskariak gehituz doazela eta aldiz duen kapazitatea agortzen. Sistemaren bitarte "deslinguistizatuak" (dirua eta botere publikoak batez ere) neurri batean behintzat, eguneroko lengoia ordezkatzeko dute. Ekintza koordinatzen duena, lengoia izan beharrean, gero eta konplexuago den sistema batek bizitzaren munduaren kapazitatea agortzen duten inperatibo sistemikoak askatzen ditu eta sistemak bizitzaren mundua instrumentalizatzen du. Habermas bizitzaren munduaren gaineko sistemaren indarkeriaz kezkatu da, ondorioa, bere ustez, komunikazioaren murrizketa delako. Esandakoa egokiro ulertzeko gizarte modernoan sistema eta bizitzaren munduaren artean ezartzen diren erlazioak kontuan izan behar ditugu.

6. «Gure perspektibatik, arrazionalizazio formalak honako sei ezaugarri hauek ditu. Lehendabizi, egitura arrazional-formala eta erakundeek *kalkulabilitatea* edo zenbaterako gauza den azpimarratzen dute. Bigarren lekuan, *eraginkortasuna* edo helburu jakin bat lortzeko bitartekorik onenaren erabilpena azpimarratu dugu. Hirugarren postuan, *auresankortasuna*, hau da, leku eta garai ezberdinetan modu berean operatzen duena. Laugarren postuan, sistema arrazional-formal batek giza teknologia gero eta gehiago murrizten du, eta azkeneko buruan giza-teknologiaren ordezkari ez den teknologia jartzen du. Gizatiarrak ez diren teknologiak (sistema informatizatuak bezala) giza-teknologiak baino kalkulagarriagoak, eraginkor eta auresankortasun handiagokoak direla uste da. Bosgarren lekuan, sistema arrazional-formalak ziurgabetasun batzuei buruzko *kontrola* lortzen saiatzen dira. Azkenik, sistema arrazionalak, sartuta dauden pertsonentzat, sistemarentzat beraiarentzat eta gizartearentzat ondorio irrazionalak dituzte».

BIZITZAREN MUNDUAREN ORDENA INSTITUZIONALAK	ELKARTRUKE-ERLAZIOAK	BITARTEKOEK ZUZENDUTAKO AZPISISTEMAK
BIZITZA PRIBATUAREN EREMUA	1) LANGILEA $\begin{array}{c} P' \\ \longrightarrow \\ \text{LANERAKO INDARRA} \\ \longleftarrow \\ D \\ \text{LANAREN ERRENTAK} \end{array}$ 2) KONTSUMITZAILEA $\begin{array}{c} D \\ \longleftarrow \\ \text{ONDASUN ETA ZERBITZUAK} \\ \longrightarrow \\ D' \\ \text{ESKARIA} \end{array}$	SISTEMA EKONOMIKOA
IRITZI PUBLIKOAREN EREMUA	1) BEZEROA $\begin{array}{c} D' \\ \longrightarrow \\ \text{ZERGAK} \\ \longleftarrow \\ P \\ \text{ETEKIN ERATZAILEAK} \end{array}$ 2) HIRITARRA $\begin{array}{c} P \\ \longleftarrow \\ \text{ERABAKI POLITIKOAK} \\ \longrightarrow \\ P' \\ \text{POPULAZIOAREN LEIALTASUNA} \end{array}$	SISTEMA ADMINISTRATIBOA

D= «dirua» bitartekoa P= «boterea» bitartekoa

1. Laukia. Sistema eta bizitzaren munduaren arteko erlazioak sistemaren perspektibatik.

Bi azpisistema bereizten dira: ekonomia kapitalista eta jendaurreko administrazioa. Lehenengoari diruaren kontrol-bitartekoa dagokio eta bigarrenari boterearen kontrol-bitartekoa. Aldi berean, aipatutako bi azpisistemak bizitzaren munduaren ordena instituzionaletik bereiztu egiten dira.

Gizarte burgesean sozialki integraturiko ekintzarako eremuak bitan banatu daitezke: bizitza pribatuaren eremua eta iritzi publikoaren eremua (Ritzer 1993: 452)⁷, osagarriak eta legitimatea lortzeko nabariak diren eremuak. Bizitzaren munduaren ordenua eta

7. «Bizitza pribatuaren eremuko gune instituzionala familia txikia da, funtzio ekonomikoetatik arindua eta sozialgintza-lanetan espezializatua; sistema ekonomikoaren perspektibatik etxeko ekonomia bezala agertzen zaigu, hau da, sistema ekonomikoaren inguru bezala. Iritzi publikoaren gune instituzionala, artearen lantza, prentsa eta komunikabideek isladatzen dituzten itxura sozialek indarturiko komunikazio-sareaz osaturik dago. Aipatu itxura sozialek, kulturaren erreprodukzioan arte-

azpisistemen arteko erlazioek, ondorengo ezaugarriak dituzte:

1) Sistema ekonomikoak soldata lanagatik eta ondasun eta zerbitzuak kontsumitzaileen eskariengatik elkartrukatzen ditu; zentzu honetan, bizitzaren munduaren perspektibatik langile eta kontsumitzailearen rola kristaltzen dira.

2) Administrazio publikoak etekin eratzailerak zergengatik eta erabaki politikoak populazioaren leialtasunagatik elkartrukatzen ditu; horrela burokrasia publikoen bezeroak eta hiritarraren rola sortzen dira.

3) Burokrazien bezero eta hiritarraren rola funtzioarekin, aktoreak komunikatiboki egituraturik dauden ekintzen eremuetatik deslotu egiten dira, formalki antolaturiko eremuetara moldatzeko. Honela, lanerako indarra eta zergak eskaintzen dituzte, elkartrukean soldata eta prestazio eratzailerak jasotzeko. Modu honetan, lanerako indarraren monetarizazioa eta prestazio estatalen burokratizazioa burutzen dira. Portaeraren monetarizazioak sistemak bizitzaren munduari erasotzen diola esan nahi du, pertsonen elkarren arteko trukeak erosketasalgai itxura merkantilizatua hartzen duelako berezko elkartruke sinbolikoaren orde. Beste alderditik, portaeren burokratizazioaren prozesua bizitzaren munduak jasotzen duen erasoaren ondorioa da, baina ez diru-bitartekoaren bidez, botere-bitartekoaren bidez baizik; honela manua, kontrola, diziplina eta ernetasuna pertsonen jokabideetan sartzen diren jarrera eta helburu bihurtzen dira.

4) Kontsumitzaile eta hiritarraren rola dagokienez, formalki antolaturiko esparruekin lotuta daude, baina ez dute zer ikusirik inolako erakunderekin. Aktoreak, kontsumitzaile eta hiritarrak diren heinean, balore-norabide eta jarrerak zuzentzen dituzte, baina erakunde publiko edo pribatuak ezin dituzte erosi; hortik dator erosle eta hauteslearen autonomiaren fikzioa ideal burgesekin lotuta egotea:

Bi elkartruke-kategoria hauetan azpisistema ekonomiko eta politikoak bizitzaren munduarekin duten erlazioa nabaritzen da, konkretuki bizitzaren munduaren elkarrekintza komunikakorren erlazioekin duten ekidiezinezko erlazioa. Erreferentzia hau lanerako indarrean eta zergetan ez da hain nabaria (Mardones 1987: 216).

Beste hitz batzuetan esanda, formalki antolaturiko esparrua bakarrik kontrol-bitartekoek erregulatu dezakete, hauek ekintza komunikakorren esparruetan sartzen direnean, ekintzen koordinaziorako mekanismoa adostasuna izan beharrean bitarte deslinguistizatuak direnean, erreprodukzio kulturala, integrazio soziala eta sozialgintza aldatuta geratzen baitira. Kasu honetan, arartekotasunaren orde bizitzaren munduaren kolonizazioaz hitz egin beharko dugu.

Kapitalismo aurreratuaren gizarteetan krisietarako joerak

Azpisistema ekonomiko-administratiboa eta bizitzaren munduaren arteko elkartruke-erlazioen ereduak, elkartrukean izaera eta azpisistema eta bizitzaren munduaren esparruetan inskribaturiko legaltasuna ezagutzera ematen dizkigu; beste pauso bat emanez

-kontsumitzaile direnen partehartzea eta iritzi publikoek bitartekatuko integrazio sozialean hiritarren partehartzea bermatzen dute».

gero, krisi sistemikoeak (ekonomikoa eta burokratiko-administratiboa, arrazionalitatearen ereduak) sortzen dituzten prozesuak aztertu ahal izango ditugu, hala nola sistemikoki induzituriko krisiak, hau da, bizitzaren munduak jasaten dituen erasoen ondorioz sorturiko krisiak.

Krisiak eta patologiak

Aurreko orrialdeetan ikusten genuen nola bizitzaren munduaren berregintza-parada berriak, dauden mundu-egoerekin erlazionatuta egon zitezten arduratzen zela, horrela tradizioen iraupena eta eguneroko praktika komunikorraren jakitearen koherentzia ziurtatuz. Bizitzaren munduaren inte-

grazio soziala, zilegiro erregulaturiko pertsonen arteko erlazioen bidez, ekintzen koordinazioaz arduratzen zen, taldeen identitateei iraupena emanaz. Azkenik, bizitzaren munduaren kideen sozialgintzak hurrengo belaunaldien ekintzarako orokartasunezko ahalmenen lorpena ziurtatzen zien, hala nola banakako eta taldekako bizitzen sintonizazioa.

Laburtuz, lengoaiaren bitartez bizitzaren munduaren berregintza sinbolikoan adostasunera zuzendutako ekintzak dituen funtzioak (berregintza kulturala, integrazio soziala eta sozialgintza) honako hauek ditugu (Habermas 1987: 204).

	KULTURA	GIZARTEA	NORTASUNA
BERREGINTZA KULTURALA	TRADIZIOA, KRITIKA, JAKINTZA KULTURALAREN LORPENA	JAKINTZA LEGITIMATZAI-LEAREN BERRIZTAPENA	ERAKETA-PROZESUEN JAKINTZA ERAGINKORRAREN BERREGINTZA
INTEGRAZIO SOZIALA	NORABIDE BALORATIBOEN NUKLEOBATEN INMUNIZAZIOA	EKINTZEN KOORDINAZIOA BALIO-XEDEEN ONESPENAREN BIDEZ	EGOKITASUN SOZIALEN MOLDEEN BERREGINTZA
SOZIALGINTZA	ENKULTURAZIOA	BALOREEN BARRURAPENA	BANAKAKO NORTASUNAREN OSAKETA

2. Laukia. Adostasunera zuzendutako ekintzak berregintzarako betetzen dituen funtzioak.

Eta bizitzaren munduaren osagai estrukturalak mantentzeko berregintza

prozesuen ekarpenak ondorengoak ditugu (Habermas 1987: 202).

	KULTURA	GIZARTEA	NORTASUNA
BERREGINTZA KULTURALA	KONSENTSURAKO GAUZA DIREN INTERPRETAZIO-ESKEMAK	LEGITIMAZIOAK	ERAKETA-PROZESUAN PORTAERA ERAGINKORRAREN MOLDEAK, HELBURU HEZIGARRIAK
INTEGRAZIO SOZIALA	BETEBEHARRAK	ZILEGIRO ERREGULATURIKO PERTSONEN ARTEKO ERLAZIOAK	TALDEETAKO EGOKITASUNAK
SOZIALGINTZA	INTERPRETAZIOAK	ARAUEN ARABERA JOKATZEKO MOTIBAZIOAK	ELKARREKINTZARAKO AHALMENAK (IDENTITATE PERTSONALA)

3. Laukia. Bizitzaren munduaren osagai estrukturalen mantentzeko berregintza prozesuen ekarpenak.

Berregintza-prozesuen eta osagai estrukturalen arteko interrelazioak ondorengo moduan geratzen dira:

Adimendurako dagoen beharrak kulturak behar besteko jakite eraginkorra eskaintzen badu [...] beste bi osagaien mantentzeko berregintza kulturalak sortarazten duena zera da, dauden erakundeetarako legitimazioak alde batetik, eta bestetik, eraketa indibidualaren prozesuan portaera eraginkorraren moldeak [...]. Gizarteak behar besteko integrazioa badu, bizitzaren munduan dauden koordinazio-beharrak estaltzeko, beste bi osagaien mantentzeko integrazio-prozesuaren ekarpena zera da, zilegiro erregulaturiko taldeetako pertsonen egokitasunak alde batetik, eta izaera moralaren loturak edo betebeharrak bestetik [...]. Azkenik, bizitzaren munduan sortzen diren paradak, nortasunaren identitateak errealitatearen zentzuaz menderatuak badira, beste bi osagaien mantentzeko sozialgintza-

-prozesuen ekarpena zera da, lagunek egiten dituzten interpretazioak alde batetik, eta arauak markatzen duten adostasunaren arabera motibazioak bestetik» (Habermas 1987: 201-202).

Beste alde batetik, berregintza sinbolikoaz aparte, gizarte orok bizitzaren munduaren berregintza materialari dagozkion eginkizunak aurrera atera behar ditu irauteko. Aipatu eginkizunei, dirua eta botere-kontrol bitartekoak dagozkie, hauek bakarrik funtzio ekonomiko edo burokratiko-administratiiboak dituzten eremuak erregulatu baititzakete egokiro. Baina berregintza kulturalaren mailan disfuntzioak sortzen direnean, integrazio sistemoaren arazoak sortzen direnean, gune kontrolatzailearen (merkatua, Estatu) sistema finkatzeko eta arazo hauek erregulatzeko gauza ez bada, integrazio soziala mehatxatuz eta erakunde sozialen disoluzioren arriskua sortuz,

zuzenean krisiak ager daitezke, edo bizitzaren munduaren kulturaren eta nortasunaren esparruetara desbideratuak diren krisi batzuetatik eratorritako patologiak.

Krisi eta patologien arteko mugak argitzeko, saiakera honek ondorengo sailkapena ezartzen du:

1) Krisi sistemikoak: ekonomikoak eta arrazionalitate administratiboarenak.

2) Bizitzaren munduan sistemikoki induzituriko krisiak: anomia, legitimazio eta motibazioen galera.

3) Bizitzaren munduaren patologiak.

a) Kultura osagai estrukturalari dagokionez: zentzu-galera, segurtasunik eza, taldeko norabidearen aztorapena eta tradizioen etendura.

b) Nortasuna osagai estrukturalari dagokionez: norabide eta heziketa krisiak, alienazioa eta psikopatologiak.

Datozen lerroetan, puntu hauek guztiak hartuko ditugu kontuan; lehendabizi krisi sistemikoak aztertuko dira; bigarrenez, sistemikoki bizitzaren munduan induzituriko nortasunaren krisiak; eta azkenik, bizitzaren munduaren kulturaren eta nortasunaren esparruetan krisi sistemikoek sortzen dituzten alboko ondorio patologikoak.

1) Krisi sistemikoak

Kontrol sistemikoen konpondu gabeko arazoei, Marxek, kapitalismo liberararen esparruan, ezaguna zaigun azalpen teorikoa eman zien. Azalpen marxista⁸ batezbesteko etekin-tasaren beherako joeraren tesian oinarritzen zen alde batetik, eta bestetik kapitalismoaren oinarritzko aurkakotasunean, hau da, bizitza ekonomiaren gero eta gehiagoko sozializazioa *versus* produkzioaren bereganatze pribatua. Honen arabera, ekonomia kapitalista etengabeko krisi ziklikoan murgilduta egotera kondenaturik zegoen.

	KULTURA	GIZARTEA	NORTASUNA
BERREGINTZA KULTURALA	ZENTZU GALERAK	LEGITIMAZIOAREN GALERAK	NORABIDE ETA HEZIKETA KRISIAK
INTEGRAZIO SOZIALA	SEGURTASUNIK EZA ETA TALDEKO NORTASUNAREN AZTORAPENA	ANOMIA	ALIENAZIOA
SOZIALGINTZA	TRADIZIOEN ETENDURA	MOTIBAZIOEN GALERA	PSIKOPATOLOGIAK

4. Laukia. Krisi-fenomenoak. Berregintzan aztorapenak balira, patologiak.

8. Gai honetaz dagoen bibliografia ugaria da; beste batzuen artean, nik Mattick 1977 hartu dut kontuan.

Baina kapitalismo berantiarra azterterakoan planteamendu honen gutxiegitasunak batez ere ondoko bi hauek ziren:

a) Sistema ekonomikoaren autonomiaren galera, ziklo ekonomikoaren erregulazioan eta plangintzan Estatuak parte hartzen baitu, honela gehigarrien inbertsiorako aukerak sortuz eta hobetuz.

b) Azpisisistema ekonomikoaren independentziaren zulapena, Estatuak negoziaketa-erritualetan parte hartzearen ondorioz, zeinetan lanerako indarraren salneurri politikoa zehazten den.

Beraz, azpisisistema ekonomiko eta administratiboaren autonomizazioaren fase baten ordeaz gaur egungoa dator, azpisisistemen interpenetrazioaz bereizten dena. Ingurumen hauetan, estatuak merkatuaren zulogune funtzionaletan jokatzeko du, honela azpisisistema ekonomikoa osatzen du eta kapitalaren pilaketaren prozesuan laguntzen du.

Hala ere, krisi ekonomikoek diraute. Gehienez ere, krisi ekonomikoen xurgapen administratiboaren ondorioz, aipatu krisien saihesteko ezintasunari buruzko argudioek eta *azken krisi handiari* buruzkoek ahulezia agertzen dutela esan daiteke.

Beste alde batetik, dakigun bezala, Estatuak merkatuaren ahulezia funtzionalak uzten dituen zuloak bete behar ditu eta ekonomiaren plangintza eta erregulazioarekin lotuta dauden betebeharrak jaso behar ditu. Gai ekonomikoetan jarraikako inplikazio honek zergen bidez finantzabide izan behar duten herri-lan eta zerbitzuen goranzko

eskaria sortzen du. Estatuari dagokion zergen bilketa eta honen erabilera zuzena beharrezkoak dira, bestela, hazkundearen perturbazioek arrazionalitate administratiboaren defizitak ekarriko bailituzkete.

Habermasek diseinatu duen ereduaren arabera, arrazionalitate-krisiak jatorriz azpisisistema politikora lerraturiko krisi ekonomikoak dira; eta hauek bezalaxe izaera sistemikoarenak, kontrol-funtzioen balizko kolapsoek integrazio sozialaren deskonposaketa suposatuko bailukete. Baina, lerraturiko krisi ekonomikoak badira ere, beraien garapena, bilakaera eta balizko erabakia inguru politikoan ematen dira. Beraz arrazionalitate-krisiak agertuko dira

helburuetara zuzendutako ekintza arrazionaletan, administrazioaren kideen autogobernuaren inperatibo kontraesankorrak (ez merkatuan parte hartzen dutenenak) sortzen direnean, integrazio sistemikoa arriskuan jarriko duten kontraesanak agertuko dira eta ondorioz integrazio sozialerako mehatxua ekarriko dute (Habermas 1975: 88).

2) Indukzio sistemikoaren krisiak

Aurreko atalean aipatutako kontrol sistemikoaren arazoak

krisi bezala agertzen dira bakarrik ekonomia eta estatuaren etekinak ageriz ezarritako helmugaren maila jakin baten azpitik geratzen direnean, bizitzaren munduaren berregintza sinbolikoa arbuiauz, bizitzaren munduan gatazkak eta erresistentziaren erreakzioak sortarazten baitituzte. Gatazka eta erreakzio hauek bizitzaren munduaren osagai sozialetan eragin zuzena dute. Baina liskar hauek integrazio sozialaren eremuguneak arriskuan jarri baino lehenago ingurura lerratuak dira: anomia-

-egoerak gertatu baino lehen, legiti-
mizazioaren⁹ edo motibazioen galeraren
fenomenoak agertzen dira (Habermas
1987: 545).

Legitimazio-krisiak eta sistemikoki
induzituriko motibazioen krisiak atal
honetan aztertuko ditugu.

Gogoratzen badugu, krisi sistemikoak aipatzerakoan Habermasekin batera Estatuak zergen bilketa eta zergen gastu arrazionalari buruzko betebeharrak bete behar zituela esaten genuen, honela metaketa kapitalistaren prozesuari laguntzen ziolarik; honez gainera, zeregin hauetako porrotek arrazionalitate administratiboaren krisiak ekartzen zituztela ere esaten genuen. Aipatutako betebeharrez aparte «zergen bilketa hautakorra, zergen zertarakoen lehenetsunaren eredu onartua eta berezko etekin eratzailak» (Habermas 1975: 81) ditugu; haiekin loturiko porrotek legitimazioaren defizitak ekarriko dituzte.

Beraz, zergen bilketaren eginkizunen, zergen gastu arrazionalaren bete-kizun, etabarrenak, arrazionalitatearen krisiak saihesteko, monetaren beste aldea erakusten du: gobernuaren ihardueraren legitimizazioaren beharra.

Sistema ekonomikotik lerraturiko inperatiboak betetzen diren bitartean populazioaren baieztapena eta leialtasun-maila egokia ezin bada mantendu, legitimizazioaren krisia egon dadin arriskua sortzen da. Arrazionalitatearen eta legitimizazioaren krisiak jatorriz sistema politikoan sortuak badira ere, aspektu nagusienetan ezberdintzen dira. Lehendabizikoak *outputen* krisiak dira; Estatuak ertzetako baldintza jakin batzuen menpean, sistema ekonomikoaren kontrol egokia eduki ezin deza-

keenean sortzen dira. Zentzu honetan, arrazionalitatearen krisia lerraturiko krisi ekonomikoa da eta integrazio sistemikorako suposatzen duen mehatxuak, kontrolen operazioen desantolaketaren erapean, integrazio soziala arriskuan jartzen du eta legitimizazioaren galera dakar. Aitzitik, legitimizazioaren krisia zuzenean ez da krisi sistemikoa, nortasunaren krisia baino, hau da, integrazio sozialerako zuzeneko mehatxua erakusten du (McCarthy 1987: 424).

Kapitalismo berantiarraren legitimizazioaren krisiari buruzko tesiaren defentsan, Habermasek honako argudioa garatu du: merkatuak utzitako eremuetan Estatuaren ordezkoko eskuharmenekin, sistema ekonomiko eta politikoa birbatzen dira, produkzio-harremanak birpolitizatuz. Aberastasun sozialaren banaketaren irizpideetan estatuak parte hartzen badu (gobernuaren politikaren bidez, itun sozialen bidez, etabarrez) eta metaketa kapitalistaren prozesua irizpide pribatuaren menpe dagoenez, produktu sozial ezberdineko banaketak legitimatua geratu behar du. Garapen kapitalistan higaturiko tradizioen ondasuna apelatu ezin daitekeenez,

horrek dakarren arazoa demokrazia formalaren formulapean ebazten da. Borondate politikoaren osaketan hiritarren eskuharmena, hau da, demokrazia materialak, administratiboki sozializatua den produkzioaren eta gainbalioaren erabileraren eta jabetze pribatuaren moduen arteko aurkakotasuna kontzientziara eramango luke. Aipatu aurkakotasuna *tematizatua* izan ez dadin, sistema administratiboak borondate legitimatzailea eratzeke behar besteko autonomia lortu behar du. Erakunde eta demokrazia formalaren prozedurak gobernuaren erabakiak hiritarren motibo zehaztuekiko nahikoa independentziare-

9. Legitimizazio kontzeptuari buruz cfr. Habermas 1976.

kin hartu ahal daitezen diseinatuak izan dira. Aurreko motibo orokortuak (populazioaren leialtasun zirriborotsua) hornitzen dituen legiti-mazioprozesuekin lortzen da hori, baina partaidetasuna galarazten du» (Haber-mas 1975: 53).

Dena den, Habermasen tesiaren arabera kapitalismo berantiarreko gizarteek legitimazio-eskasiak garatzen badituzte ere, hauen itzuliezintasunez beharrezkoa da esatea “zentzu” baliabidea gero eta urriagoa dena, “balore” baliabidearekin gero eta ugariagoa dena konpentsatua bada, *administratuak* izan daitezkeela. Arrazionalitate-krisiak legitimazio-krisiekin elkartuak badaude, hauek aldi berean motibazio-krisiekin lotuak dira. Legitimazio-krisiak bete ezin daitezkeen itzarobideak sortzen direnean gertatzen dira, hau da elkarren kontra daudenean, Estatuak, hezkuntzak eta lanbide-sistemak behar dituzten *input* motibazioak, sistema soziokulturalak (Habermas 1975, 20)¹⁰ eskaintzen dituenarekin. Motibazio-krisia sortzen da

sistema soziokulturala aldatzen denean eta horren ondorioz bere outputa Estaturako eta lan sozialaren sistemarako dis-funtzional bihurtzen denean. Kapitalismo berantiarreko gizartearen ezaugarria den ekarpen motibazionalik garrantzitsuenak pribatismo zibilaren sindromea eta familiaren inguruko pribatismo profesionala dira (Habermas 1975: 96).

3) Bizitzaren munduaren patologiak

Aztertu dugunaren arabera, kontrol-mugarik gabeko desoreka sistemikoek bizitzaren munduaren gainean zuzenki eragingo balute, integrazio

sozialaren guneak ukituko lituzkete, anomia-egoerak sortuz. Baina, gune hauetara heldu baino lehenago ingurura lerratuak dira, motibazio- eta legiti-mazio-krisiak sortuz. Beste alde bate-tik, kontrol-krisiak bizitzaren mundua-ren bitartekoek tartean hartuko bali-tuzte, aipatutako esparruan patologiak emango liriateke. Beraz, prelazio-me-kanismoak jokatzen du: krisi anomi-koak saihesten dira eta kultura-norta-sun sistemei dagozkien baliabideak ustiatzen diren bitartean ordena institu-zionala mantentzeko legitimazio eta motibazioak bermatu egiten dira. Anomia, legitimazio- eta motibazio-krisien orde-z alienazio eta taldekako nortasu-naren desegituraketan fenomenoak agertzen dira. Kasu honetan, aktoreek egoera berriek exijitzen duten koordi-nazio-beharra, indarrean dauden orde-nakuntza legitimoek apelatuz estali ezin dutenean, aztorapenak sortzen dira.

Berregintza kulturalak tradizioen iraupena eta praktika komunikakorra-ren jakintzaren koherentzia bermatzen badu, berregintza kulturalarekin lotutako aztorapenak, zentzu-galerak, hezkuntza eta norabide-krisiak eta legitimazio-krisiak izango dira. Aztorapenek integrazio sozialaren guneek eragiten dietenean, zilegiro erregula-turiko pertsonen arteko erlazioek ekin-tzak ez dituzte koordinatuko eta tal-deetako jarraipena kolokan jarriko da. Indarrean dauden ordenakuntza legiti-moek ezin izango dute egoera berrien koordinazio-beharra estali, eta segur-tasunik ezak eta taldekako nortasu-nean aztorapenak, alienazio-itxura hartzen duten patologiak eta krisi anomikoak agertuko dira.

10. Sistema kulturaltzat tradizio kulturala (balore kulturalen sistemak) eta sozialgintza eta profesionaltasunaren prozesuen bidez erakundeek aipatu tradizioei normatibitatea eskaintzen diete.

	KULTURA	GIZARTEA	NORTASUNA
BERREGINTZA KULTURALA	KONSENTSURAKO GAUZA DIREN INTERPRETAZIO- -ESKEMAK	LEGITIMAZIOAK	ERAKETA-PROZESUAN PORTAERA ERAGINKORRAREN MOLDEAK, HEZIKETA HELBURUAK
INTEGRAZIO SOZIALA	BETEBEHARRAK	ZILEGIRO ERREGULATURIKO PERTSONEN ARTEKO ERLAZIOAK	TALDEETAKO EGOKITASUNAK
SOZIALGINTZA	INTERPRETAZIOAK	ARAUEN ARABERA JOKATZEKO MOTIBAZIOAK	ELKARREKINTZARAKO AHALMENAK (IDENTITATE PERTSONALA)

5. Laukia. Bizitzaren munduaren osagai estrukturalen mantentzeko berregintzaren prozesuen ekarpenak.

Azkenik, sozialgintza-mekanismoari bizitzaren munduak ekartzen dizkion baliabideek datozen belaunaldiei elkarrekintzarako ahalmenen erospen-bidea ematen badiete, honela banaka eta taldekako bizitzen arteko sintonia lortuz, prozesu honetako aztorapenak psikopatologiak izango dira, eta zera adieraziko dute:

aktoreen gaitasunek elkarren artean definitutako egoeren intersubjektibitatea mantentzeko ez dutela balio. Nortasun-sistemak baka-rrik gorde dezake bere identitatea, elkarrekintzan parte hartzeko gaitasuna gutxitzen duten estrategia defentsiboetara jota, honela errealitate-zentzua erne mantentzen da eta *ni-aren indarra* urri bihurtzen da (Habermas 1987: 201).

Beraz, erlazio erabilkorren eta elkar-truke pertsonalerako gauza ez diren pertsonen gizarte honetan, ez da harritzekoa krisi pertsonalen hedapena. Liskar sozialak ordena psikikora lekualdatzen dira. Gaur egun, depresioak, estuasunak, eta bizi zentzuga-

bea trataera psikiatrikoen eta toxikomanien bidez amatatu nahi diren arazoak dira. Barne-kolonizazioaren sindrome honek adierazle sozialak ditu: alkoholismoa eta droga, bere buruaz beste egiten duten pertsonen kopuru hazkorra eta gazte-delinkuentzia; hauek integrazio sozialaren gabeziaren eta porrot egin duen sozialgintzaren seinaleak dira.

6. Krisi baten erronkak

Jarraitu den eskemak errealitatean gertatzen denarekin antz handia badu, honek esan nahi du norabide kultural berri baten behararen aurrean aurkitzen garela. Sistemaren bitarteko instrumentalaren erlazioak, pertsonen beharrek eta erabaki libre eta arrazionalak zuzendu behar dituzte. Gure gizarte eta gure kulturari eragiten diona bizitzaren munduaren kolonizazioa dela konturatu gara; hau da, etikari, hausnarketari eta giza erabakiei erreserbatutako eremuetan funtzionalizazio teknikoaren sartze hazkorra.

Garapen teknoekonomikoaren logika honek lana funtzionalizatu eta eskoletan konpetentzia eta atarramendua sartzen ditu. Zerbitzuak, denbora eta harremanak dirutzen ditu, kontsumoaren parametroan bizitza pertsonala birdefinituz. Aldi berean, estatuaren antolaketa eta erabaki administrati- boak hezkuntza, aisia, familia eta bizitza pribatuaren eremuetan gero eta gehiago sartzen dira. Ikuspuntu honetatik, giza harremanen bizitzaren munduaren gainean sistemaren gorako manupe ulergarria da.

Helburua erlazio hau aldatzea da. Harremanen monetarizazioa eta burokratizazioa sistemaren esparru e- strukturaletara mugatu behar dira eta gizon libreek beren beharrei eta eraiki nahi duten gizarte-motari buruzko hausnarketan zuzenduak izan behar dira. Sistema zuzendu behar dugu eta ez hark gu zuzendu. Ekintza komuni- kakorraren arrazionalitatearen hiru ardatzak kontuan izan behar ditugu: arrazionalitate kognoszitibo-instru- mentala alde batetik, baina baita arra- zionalitate praktiko-morala eta este- tiko-adierazkorra ere.

Berregintza sozialaren hitzetan, erlazioak berregitea da helburua, integrazio sozialaren eta sistemikoaren arteko egokitze-prozesu honek akto- reen ekintza sozialak zuzentzen dituz- ten arauak aldatzea suposatzen du alde batetik eta bestetik, mekanismo edo egitura sozial, politiko eta ekono- mikoaren jokaera funtzionala ere alda- tzea exijitzen du. Aurrekoak arraziona- litate funtzionala arrazionalitate komu- nikakorraren menpean egon behar duela esan nahi du.

Modernitatearen patologiarene diag- nostikoak arrazionalitate instrumenta- -funtzionalari mugak jarri beharrera eramaten gaitu. Eta honek ez du esan nahi oinarrizko garapen tekniko-zienti- fikora bueltatu behar dugunik, gizar- tearen lema arrazionalitate komuni- kakorraren pean egon behar dela baino. Honetarako, indarra ahuldu eta arrazionalitate komunikakorra indartu behar da, gure beste iritzien eba- zenak, elkarrizketa, partaidetza eta arrazoien bidez konbentzitzen duten argudioen bitartez.

Bibliografia

- Beriain, J., (1990): *Representaciones colectivas y proyecto de modernidad*, Anthropos, Bartzelona.
- Gabas Pallas, R., (1980): *Habermas: burguesía, marxismo, lingüística*, Ariel, Bartzelona.
- Garmendia, J.A.; Navarro, M.; Parra Luna, F., eds. (1987): *Sociología industrial y de la empresa*, Aguilar, Madril.
- Giddens, A., (1988): *Habermas y la modernidad*, Cátedra, Madril.
- Gimenez Redondo, M., (1988): *Racionalidad y acción comunicativa en la obra de J. Habermas*, Fund. Inv. Marxistas, Madril.
- Habermas, J., (1975): *Problemas de legitimación en el capitalismo tardío*, Amorrortu, Buenos Aires.
- , (1976): *La reconstrucción del materialismo histórico*, Taurus, Madril.
- , (1984): *Ciencia y técnica como ideología*, Tecnos, Madril.
- , (1987): *Teoría de la acción comunicativa*, vols.1 y 2, Taurus, Madril.
- , (1988): *La lógica de las ciencias sociales*, Tecnos, Madril.

- , (1989): *Teoría de la acción comunicativa: complementos y estudios previos*, Cátedra, Madrid.
- Lafont, C., (1994): *La razón como lenguaje*, Visor, Madrid.
- Lamo de Espinosa, E.; Rodríguez Ibañez, J.E., eds. (1993): *Problemas de Teoría Social contemporánea*, CIS, Madrid.
- Luhmann, N., (1990): *Sociedad y sistema: la ambición de la teoría*, Paidós, Barcelona.
- Mardones, J.M., (1985): *Razón comunicativa y teoría crítica*, EHU-UPV, Bilbo.
- Mattick, P., (1977): *Crisis & Teoría de la crisis*, Península, Barcelona.
- McCarthy, Th., (1987): *La teoría crítica de Jürgen Habermas*, Tecnos, Madrid.
- Perez-Agote, A., (1993): "La crisis de la sociedad: entre la mundialización y la disolución narcisista" in Lamo de Espinosa & Rodríguez Ibañez 1993.
- Popper, K.R., (1982): *Conocimiento objetivo: un enfoque evolucionista*, Tecnos, Madrid.
- Rodríguez-Gonzalez, J., (argitaratzeaz): *Las paradojas patológicas de la modernidad adulta. La relectura habermasiana de Max Weber*, Anthropos, Barcelona.
- Sarries Sanz, L., (1993): *Sociología de las Relaciones Industriales en la sociedad postmoderna*, Mira eds, Zaragoza.
- Serrano Gómez, E., (1994): *Legitimación y racionalización; Weber y Habermas, dimensión normativa*, Anthropos, Barcelona.
- Touraine, A., (1993): *Crítica de la modernidad*, Temas de hoy, Madrid.
- Ureña, E.M., (1977): *La teoría crítica de la sociedad de Habermas*, Tecnos, Madrid.